Legazpi
DOMINGO AGIRRE
Eskola

# ZER EGIN IKASLEAREN ISTRIPU BATEN AURREAN?

| ISTRIPUA | Zer egin | | Zer ez egin |
|---|---|---|---|
| Kolpeak | 1. Gel hotza ipini : gela beti babestuta egon behar du azala ez erretzeko, 5-10 minutu. | | EZ JARRI pomadak, olioak edo horrelakorik. |
| Erredurak | 1. Busti.  Uretan egon behar den denbora:<br>- 1. mailakoa (babarik ez): 10 min.<br>- 2. mailakoa (babarekin): 20 min.<br>2. Estali gasa esterila erabiliaz.<br>  | | EZ JARRI pomadak, olioak edo horrelakorik.<br>EZ JARRI izotza edo ur izozturik.<br>EZ ERABILI kotoirik.<br>Ez, babarik zulatu.<br>EZ NEUTRALIZATU erredura kimikoak badira. |
| Zauriak | **ARINAK**<br>1. Eskuak <u>ondo</u> garbitu (eskularruak erabili)<br>2. Zauria garbitu: gasak erabiliz<br>- ura eta xaboiarekin<br>- suero fisiologikoarekin<br>- barnealdetik kanpoaldera<br>3. Betadine edo cristalmina gardena eman | **LARRIAK**<br>1. Lasaitu<br>2. Odol-jarioa balego, geldiarazi. (Aposito batez presioa egin, apositoa odolez blai egonez gero, kendu gabe beste aposito bat gainetik jarri).<br>3. Zauria ez zirikatu.<br>4. Gasa esterilez estali eta erantsi<br>5. Erietxera eraman arte zaindu: Arnasketa, aurpegiko kolorea, konbultsio edo agitazio berezirik duen, gorakada edo botaka egiten duen begiratu. | EZ ERABILI, zauriaren gainean:<br>- kotoia, paperezko zapirik<br>- Alkohola, lixiba<br>- Pomada edo bestelakorik<br><br>EZ SAIATU zauritik <u>gorputz arrotzak ateratzen</u> ( txikiak badira eta ibilbide jakina badute kenduko ditugu soilik). |
| Begian gorputz arrotza | 1. Saiatu ura edo suero fisiologikoz garbitzen<br>3. Erietxera eraman | | EZ SAIATU, begitik  gorputz <u>arrotzak ateratzen.</u><br>EZ BOTA kolirio edo antzekorik. |
| Begian zipristina | 1. Urez garbitu, ez estali<br><br>2. Erietxera eraman | | Ez bota neutralizatzeko produkturik. |